Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko urtarrilaren 31, astelehena — 19 — Lunes, a 31 de enero de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) zergak kudeatzeko izenpetzen duten Lankidetza Hitzarmenari Adenda.*

2021eko abenduaren 30ean sinatu zen adenda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta AEPROSERek zergak kudeatzeko 2020ko maiatzaren 27an izenpetu zuten hitzarmenaren edukia eguneratzen duena.

Dagozkion ondorioetarako eta denek jakin dezaten adendaren testu osoa argitaratzen da.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 11.—Laura Gallastegui Amiama, idazkari teknikoa. (147)

*Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) zergak kudeatzeko izenpetzen duten Lankidetza Hitzarmena.*

ADENDA

ELKARTURIK

Alde batetik, Jokin Perona Lerchundi jauna Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren izenean diharduena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta bestetik, Santiago Bellver Gabana jauna, Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkartearen (aurrerantzean, AEPROSER) lehendakaria, elkarte horren izenean eta ordezkaritzan diharduena, entitatearen estatutuen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta xede horrekin honako hau,

ADIERAZTEN DUTE

*Lehena.* 2020ko maiatzaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) gizarte-lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuten tributuen Kudeaketan, eta, horren bidez, bi erakundeen arteko oinarrizko lankidetza esparrua ezarri zen, hainbat zerga ereduen aurkezpenaren Kudeaketa eta zerga obligazioak betetzeko arloan laguntza eginkizunak burutzeko. Hain zuzen zerga eredu hauek:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Adenda al Convenio de Colaboración Social en la gestión de los tributos entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER).*

El 30 de diciembre de 2021 se suscribió la adenda que actualiza el contenido del convenio de colaboración firmado el 27 de mayo de 2020 entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y AEPROSER en materia de gestión de impuestos.

A los efectos oportunos y para general conocimiento, se publica el texto íntegro de la adenda.

San Sebastián, a 11 de enero de 2022.—La secretaria técnica, Laura Gallastegui Amiama. (147)

*Convenio de Colaboración Social en la gestión de los tributos entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER).*

ADENDA

REUNIDOS

De una parte, don Jokin Perona Lerchundi, diputado foral de Hacienda y Finanzas, actuando en representación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud de lo establecido en el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De la otra don Santiago Bellver Gabana, presidente de la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (en adelante, AEPROSER), actuando en nombre y representación de la misma, de conformidad con el artículo 11 de los estatutos de la entidad.

Ambas partes, se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente convenio y a tal fin,

MANIFIESTAN

*Primero.* Con fecha 27 de mayo de 2020 el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos Y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER) suscribieron un convenio de colaboración social en la gestión de los tributos por el que se estableció el marco básico de colaboración entre ambas entidades para la realización de las tareas de apoyo para la gestión y el cumplimiento de las obligaciones en la presentación de los siguientes modelos tributarios:

EK\CV GAO-I-2022-00147

— 60A eredua. Egintza juridiko dokumentatuak. Agiri administratiboak eta notaritzakoak.

— 60S eredua. Aitorpen-likidazioa. Sozietate eragiketak.

— 60T eredua. Aitorpen-likidazioa. Ondare eskualdaketak.

*Bigarrena.* Eredu horiek ZERGABIDEA plataforman sartuko dira (Gipuzkoako Foru Aldundian zerga-ereduak egin eta aurkezpena); beraz, bide horren bidez aurkeztu ahal izango dira, ereduak web-zerbitzuen bidez bidali ordez.

*Hirugarrena.* Gainera, gaur egun ZERGABIDEA plataforman sartu dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren ereduak, hau da,

– 670 eredua. Oinordetzak.

– 671 eredua: Dohaintzak.

– 672 eredua: Bizitza Aseguruak.

*Laugarrena.* Hitzarmenaren zazpigarren klausulan jasotakoari jarraituz hitzarmenaren edukia edozein unetan eguneratu edo aldatu ahal izango da, aldeen adostasunarekin, horretarako dagokion eranskina sinatuz.

*Bosgarrena.* Aurrekoaren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER), Kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, komenigarritzat jo dute, 2020ko maiatzaren 27an aldeek sinatutako hitzarmenaren edukia eguneratzea, alde batetik, hasierako hitzarmenean jasotako ereduak ZERGABIDEA plataforma erabiliz aurkezteko aukera aurreikusteko, eta, bestetik, hitzarmenaren ondorioak Oinordetzen gaineko Zergaren aipatutako ereduetara zabaltzeko.

Gauzak horrela, bi aldeek erabakitzen dute 2020ko maiatzaren 27an sinatutako lankidetza hitzarmenaren adenda hau sinatzea, ondoko klausulei jarraituz:

KLAUSULAK

*Lehena. Adendaren xedea.*

Adenda honen xedea da 2020ko maiatzaren 27an aldeek sinatutako hitzarmenaren edukia eguneratzea:

a. Hasierako hitzarmenean eta adenda honetan jasotzen diren zerga ereduak ZERGABIDEA plataforma erabiliz aurkezteko aukera jasotzea, eta

b. Hitzarmenaren ondorioak Oinordetzen gaineko Zergaren hainbat eredutara zabaltzea.

*Bigarrena. Jatorrizko hitzarmenaren lehen klausula aldatzeka.*

Aldatu egiten da 2020ko maiatzaren 27an aldeek sinatutako hitzarmenaren lehen klausula, eta honela geratzen da idatzita:

Hitzarmen honen xedea da oinarrizko lankidetza esparrua ezartzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren (aurrerantzean, Departamentua) eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkartearen (aurrerantzean, AEPROSER) artean, hainbat zerga ereduen aurkezpenaren Kudeaketa eta zerga obligazioak betetzeko arloan laguntza eginkizunak burutzeko. Hain zuzen zerga eredu hauek:

— 60A eredua. Egintza juridiko dokumentatuak. Agiri administratiboak eta notaritzakoak.

— 60S eredua. Aitorpen-likidazioa. Sozietate eragiketak.

— Modelo 60A. Actos Jurídicos Documentados. Documentos notariales y administrativos.

— Modelo 60S. Declaración-liquidación. Operaciones societarias.

– Modelo 60T. Declaración-liquidación. Transmisiones patrimoniales.

*Segundo.* Paulatinamente, estos modelos se van a incorporar a la plataforma ZERGABIDEA (elaboración y presentación de los modelos tributarios en la Diputación Foral de Gipuzkoa) por lo que será posible la presentación de los mismos a través de esta vía en sustitución del envío de los modelos a través de servicios web.

*Tercero.* Además, a fecha de hoy, se han incorporado a la plataforma ZERGABIDEA los modelos del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, esto es,

– Modelo 670: Sucesiones.

– Modelo 671: Donaciones.

– Modelo 672: Seguros de vida.

*Cuarto.* De conformidad con lo dispuesto en la cláusula séptima del convenio, su contenido podrá ser actualizado o modificado en cualquier momento, de mutuo acuerdo mediante la suscripción del correspondiente anejo al mismo.

*Quinto.* Como consecuencia de lo anterior, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER), por razones de eficacia en la gestión, han considerado conveniente actualizar el contenido del convenio suscrito entre las partes el 27 de mayo de 2020 al objeto de, por un lado, contemplar la posibilidad presentación de los modelos incluidos en el convenio inicial mediante la plataforma ZERGABIDEA, y, por otro, ampliar los efectos del convenio a los citados modelos del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

De conformidad con lo expuesto, ambas partes deciden suscribir la presente adenda al convenio de colaboración social en la gestión de los tributos suscrito el 27 de mayo de 2020, que se regirá por las siguientes cláusulas:

CLÁUSULAS

*Primera. Objeto de la adenda.*

El objeto de esta adenda es actualizar el contenido del convenio suscrito entre las partes el 27 de mayo de 2020 al objeto de:

a. Contemplar la posibilidad presentación de los modelos tributarios incluidos en el convenio inicial y en la presente adenda mediante la plataforma ZERGABIDEA, y

b. Ampliar los efectos del convenio a determinados modelos del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

*Segunda. Modificación de la cláusula primera del convenio inicial.*

Se modifica la cláusula primera del convenio suscrito entre las partes en fecha 27 de mayo de 2020 que queda redactado de la siguiente forma:

El objeto del presente convenio es establecer el marco básico de colaboración entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante Departamento) y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (en adelante, AEPROSER) para la realización de las tareas de apoyo para la gestión y el cumplimiento de las obligaciones en la presentación de los siguientes modelos tributarios:

— Modelo 60A. Actos Jurídicos Documentados. Documentos notariales y administrativos.

— Modelo 60S. Declaración-liquidación. Operaciones societarias.

EK\CV GAO-I-2022-00147

— 60T eredua. Aitorpen-likidazioa. Ondare eskualdaketak.

— 670 eredua. Oinordetzak.

— 671 eredua. Dohaintzak.

— 672 eredua. Bizitza aseguruak.

Hitzarmen honek AEPROSERen bazkideentzat ere sortuko ditu ondorioak. Horretarako, entitate horiek hitzarmenera bildu beharko dira bere ordezkaritza duen pertsonak I. eranskin gisa ageri den atxikimendu agiri indibidualizatua sinatuz. Bertan, besteak beste, berariaz adierazten da hitzarmenaren edukia osorik onartzen dela.

*Bigarrena. AEPROSERen bazkide diren entitateen erakundeen hitzarmenari atxikitzea.*

AEPROSERen bazkide diren entitateek hitzarmenean aurreikusitako jarduerak egin ahal izateko, hari atxikitzeko dokumentu indibidualizatua sinatu beharko dute, eta bertan adieraziko dute zein zergatarako atxikitzen diren.

Dagozkion ondorioetarako, aldatu egiten da hitzarmenari atxikitzeko dokumentu indibidualizatua, jatorrizko hitzarmenaren I. eranskin gisa agertzen zena. Horren ordez, adenda honen I. eranskin gisa agertzen dena jarriko da, eta jatorrizko hitzarmenaren zati bihurtuko da, adenda sinatu ondoren.

Hasierako hitzarmenari atxikitzeko dokumentua sinatu zuten erakundeek banakako atxikitze-agiri berria aurkeztu beharko dute, baldin eta beren lanbide-jarduera dela-eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zerga-ereduak aurkeztu behar badituzte.

*Hirugarrena. Zergapekoen ordezkaritza egiaztatzea.*

Hitzarmenari atxikitako erakundeek hitzarmenean aurreikusitako edozein jarduketa egiteko beste zergadunen izenean, horien ordezkaritza nahikoa izan beharko dute.

Aitorpen edo autolikidazioak hirugarren pertsona edo entitateen izenean aurkezten badira horien ordezkaritza nahikorik izan gabe, bidezko diren erantzukizunak eskatuko dira.

Dagozkion ondorioetarako, aldatu egiten da jatorrizko hitzarmenaren II. eranskin gisa ageri zen ordezkaritza-eredua, eta, haren ordez, adenda honen II. eranskin gisa ageri dena jarriko da, eta jatorrizko hitzarmenaren zati bihurtuko da, adenda sinatu ondoren.

*Laugarrena. Hitzarmenaren xede diren ereduak eta eskakizunak aurkeztea.*

Autolikidazioak aurkeztean eta, hala badagokio, ordaintzean, dagokion zerga aurkezteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez ordaintzeko araudi erregulatzailean ezarritako betekizunak eta baldintzak beteko dira.

Hitzarmen honi atxikitako erakundeek bertan jasotzen diren zerga ereduak aurkezteko soilik bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte, web-zerbitzuen bidez edo ZERGABIDEA plataformaren bidez.

Eredu horiek ZERGABIDEA plataforman sartu ondoren, hori izango da onartuko den aurkezpen-bide bakarra, hargatik eragotzi gabe bi bide horiek aldi baterako erabiltzeko baimentzea, Ogasun eta Finantza Departamentuak egokitzat jotzen duen aldian.

Eta adostasuna erakusteko, bi aldeek adenda hau izenpetzen dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatua.

Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkartearen (AEPROSER) lehendakaria.

— Modelo 60T. Declaración-liquidación. Transmisiones patrimoniales.

— Modelo 670. Sucesiones.

— Modelo 671. Donaciones.

— Modelo 672. Seguros de vida.

Este convenio extenderá sus efectos a las entidades asociadas a AEPROSER. Para ello, quienes ostenten la representación de dichas entidades deberán suscribir el documento individualizado de adhesión al convenio que figura como anexo I que, entre otros extremos, recoge expresamente la aceptación del contenido íntegro de éste.

*Segunda. Adhesión al convenio de las entidades socias de AEPROSER.*

Para que las entidades asociadas a AEPROSER puedan llevar a cabo las actuaciones previstas en el convenio deberán suscribir el documento individualizado de adhesión al mismo, en el que indicarán el o los impuestos para los que se adhieren.

A los efectos oportunos, se modifica el documento individualizado de adhesión al convenio que figuraba como anexo I del convenio original que será sustituido por el que figura como anexo I de la presente adenda, y que pasara a formar parte del convenio original tras la firma de la adenda.

Aquellas entidades que hubieran suscrito el documento de adhesión al convenio inicial únicamente deberán presentar el nuevo documento individualizado de adhesión en el supuesto de que con ocasión de su actividad profesional deban presentar los modelos tributarios del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

*Tercera. Acreditación de la representación de los obligados tributarios.*

Para realizar cualquiera de las actuaciones previstas en el convenio las entidades adheridas al mismo deberán ostentar la representación suficiente de los contribuyentes en cuyo nombre quieran actuar.

La presentación de declaraciones o autoliquidaciones en nombre de terceras personas o entidades sin contar con representación suficiente de las mismas dará lugar a la exigencia de las responsabilidades que fueran procedentes.

A los efectos oportunos, se modifica el modelo de representación que figuraba como anexo II del convenio original que será sustituido por el que figura como anexo II de la presente adenda, y que pasara a formar parte del convenio original tras la firma de la adenda.

*Cuarta. Requisitos y procedimiento de presentación de los modelos objeto de convenio.*

En la presentación y, en su caso, pago de autoliquidaciones se observarán los requisitos y condiciones establecidas en la normativa reguladora para la presentación del impuesto correspondiente y del pago por medios electrónicos, informáticos y telemáticos de los ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las entidades adheridas al presente convenio presentarán los modelos tributarios objeto del mismo utilizando únicamente medios electrónicos a través de servicios web o mediante la plataforma ZERGABIDEA.

Una vez que dichos modelos se incorporen a la plataforma ZERGABIDEA esta será la única vía de presentación admitida, sin perjuicio de la posibilidad de que pueda autorizarse la utilización de ambas vías de forma transitoria durante que el periodo que estime oportuno el Departamento de Hacienda y Finanzas.

En prueba de conformidad, ambas partes firman esta adenda por duplicado en la fecha y lugar indicados en el encabezamiento.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas.

El presidente de la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER).

EK\CV GAO-I-2022-00147

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) zergak kudeatzeko izenpetzen duten lankidetza hitzarmena**

**Convenio de colaboración social en la gestión de los tributos entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER).**

## I. ERANSKINA

### Atxikimendu agiria

……………………………… jaunak/andreak, …………………………………………… (IFZ: …………………..) entitatearen izenean eta ordezkaritzan, adierazten du bildu nahi duela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) tributuen kudeaketarako izenpetutako gizarte lankidetzako hitzarmenera adierazten diren zerga-ereduak aurkezteko betebeharrak kudeatzeko eta betetzeko.

## ANEXO I

### Documento de adhesión

D./Dña …………………………………….., con NIF…………., en nombre y representación de …………………………… (con NIF …………………….. declara su voluntad de adherirse al convenio de colaboración social en la gestión de los tributos suscrito entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER) para la gestión y el cumplimiento de las obligaciones en la presentación de los modelos tributarios que se señalan:

| (laukitxoa(k) markatu): | | (marcar la(s) casilla(s): |
|---|---|---|
| Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazio hauen aurkezpena: 60T eredua –Ondare eskualdaketak–, 60A eredua –Egintza juridiko dokumentatuak– eta 60S eredua –Sozietate eragiketak. | ☐ | Presentación de las siguientes autoliquidaciones de Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados: modelos 60T -Transmisiones Patrimoniales–, 60A –Actos jurídicos documentados– y 60S –Operaciones societarias. |
| Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazio hauen aurkezpena: 670 eredua –Oinordetzak–, 671 eredua –Dohaintzak– eta 672 –Bizitza aseguruak. | ☐ | Presentación de las siguientes autoliquidaciones del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones: modelos 670 -–Sucesiones–, 671 –Donaciones– y 672 –Seguros de vida. |

Sinatzaileak biltzen den hitzarmenaren eduki osoa ezagutzen du eta baldintzarik gabe eta oso-osorik onartzen du, eta bertan jasotako obligazioak bere gain hartzen ditu berariaz eta argi eta garbi.

El/La firmante conoce el contenido íntegro del citado convenio al que se adhiere de forma incondicionada e íntegra, asumiendo de forma expresa e inequívoca las obligaciones recogidas en el mismo.

………..…, 20…(e)ko ………….aren ……a

…………………, a … de ……………de 20..

Sin. / Fdo.: ………………………………………

AEPROSERren zigilua /
Sello de AEPROSER



EK\CV GAO-I-2022-00147

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Finantza Entitate eta Korporazioen Prozesu eta Zerbitzuak Kanpora Ateratzeko Sozietateen Espainiako Elkarteak (AEPROSER) zergak kudeatzeko izenpetzen duten lankidetza hitzarmena.**

**Convenio de colaboración social en la gestión de los tributos entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación Española de Sociedades de Externalización de Procesos y Servicios para Entidades Financieras y Corporaciones (AEPROSER).**

**II. ERANSKINA** / **ANEXO II**

**001MP ORDEZKARITZA EREDUA** / **MODELO DE REPRESENTACIÓN 001MP**

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *IFZ/NIF* | *Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o Razón Social* | | | | | |
| *Zerga helbidea / Domicilio fiscal* | **Zk. / Núm** | **Letra Letra** | **Eskail. Escal.** | **Oina Piso** | **Eskua Mano** | **Telfno** |
| *Udalerria / Municipio* | *Posta kodea Código Postal* | *Probintzia / Provincia* | | | | |
| ***Ordezkariaren ordezkaria (entitate bat denean bakarrik) / Representante de la representante (sólo si es una entidad)*** | | | | | | |
| ***Ordezkariaren IFZ / NIF de la persona representante*** | ***Ordezkariaren deiturak eta izena / Apellidos y nombre de la representante*** | | | | | |

ORDEZKATUTAKOA / PERSONA (O ENTIDAD) REPRESENTADA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *IFZ/NIF* | *Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o Razón Social* | | | | | |
| ***REPRESENTANTE*** | | | | | | |
| *Zerga helbidea / Domicilio fiscal* | **Zk. / Núm** | **Letra Letra** | **Eskail. Escal.** | **Oina Piso** | **Eskua Mano** | **Telfno** |
| *Udalerria / Municipio* | *Posta kodea Código Postal* | *Probintzia / Provincia* | | | | |
| ***Ordezkatuaren ordezkaria (entitate bat denean bakarrik) / Representante de la representada (sólo si es una entidad)*** | | | | | | |
| ***Ordezkariaren IFZ / NIF de la persona representante*** | ***Ordezkariaren deiturak eta izena / Apellidos y nombre de la representante*** | | | | | |

**ORDEZKARITZA EMATEN ZAION EGINTZA JURIDIKOA / ACTO JURÍDICO PARA EL QUE SE OTORGA LA REPRESENTACIÓN**

| |
|---|
| |

**ORDEZKARITZAREN EDUKIA / CONTENIDO DE LA REPRESENTACIÓN**

Ordezkaritza honek honako ahalmenak ematen ditu behean adierazitako ereduetatik aukeratzen dituzun ereduei eta adierazitako egintza juridikoari dagokienez:

- Zerga-autolikidazioak aurkeztea, dagokion dokumentazioarekin batera.
- Jakinarazpenak jasotzea, aurkeztutako dokumentazioa egokia ez bada edo eredua onartzen ez bada.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari autolikidazioen diru-sarrerak egitea eta horren ordainketak jasotzea, autolikidazioa aurkeztean eta ordaintzean bikoiztasunik gertatzen bada.

(eredua/k aukeratu):

En relación a los modelos que usted seleccione de los abajo indicados y el acto jurídico señalado, esta representación otorga las siguientes facultades:

- Presentación de autoliquidaciones tributarias junto con la documentación correspondiente.
- Recibir las notificaciones en caso de no adecuación de la documentación aportada o rechazo del modelo.
- Realizar ingresos de las autoliquidaciones a la Diputación Foral de Gipuzkoa y recibir pagos en caso de duplicidad en la presentación y pago de las mismas.

(seleccionar el/los modelo/s):

EK\CV GAO-I-2022-00147

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

| | | |
|---|---|---|
| Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. 670 eredua –Oinordetzak, 671 eredua –Dohaintzak eta 672 eredua –Bizitza Aseguruak. | ☐ | Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Modelos 670 –Sucesiones, 671 –Donaciones, y 672: –Seguros de vida. |
| Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga (60T-Ondare eskualdaketak, 60A-Egintza juridiko dokumentatuak eta 60S-Sozietate eragiketak ereduak). | ☐ | Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos jurídicos Documentados (modelos 60T-Transmisiones Patrimoniales, 60A-Actos jurídicos documentados y 60S-Operaciones societarias). |

Data / Fecha

Ordezkatua / persona Representada:

Ordezkaria / Representante:

Sin (Izen abizenak) / Fdo. (Nombre y apellidos):

Sin (Izen abizenak) / Fdo. (Nombre y apellidos):

EK\CV GAO-I-2022-00147